

la significación de los afijos de las flexiones del Verbo Vascongado". Donostia, 1944, 524 orr.

**El sistema Ericsson de Telefonía Automática.** Tomo III. Donostia, 1947, 200 orr. Argitaratu gabe ere utzi ditu gauza batzuk.

### SEBERO ALTUBE ETA LERTXUNDI (1877-1963)

Mondragoen jaio zan 1877 azaroaren 8-an. Ikaskintzak Mondragoen bertan egin zituan. 1902 urtetik aurrera Gernika-ko Orfeiko zuzendaria izan zan. 1915-tik aurrera Gernika-ko "Alkartasuna" izeneko arma fabrikaren buru. 1920 urtean euskaltzain izendatua izan zan. 1933 urtean Gernika-ko alkate egin zuten eta 1936 urtean Frantzia-ra joan zan eta Pabe-n bizi izan zan luzaro. Berriz Gernika-ra itzuli zan urte asko eztala eta bertan il da 1963 agustuaren 27-an.

Beti eskatu zien euskeralogoai munduko linguistarik onenak eta aien metodoak ezagutu eta estudiatu bear zirala eta batez ere **La Vida del Euskera** liburuan garbizalekeriaren akatsak begien bistan jarri zizkigun eta gure literaturaren forma bide zabalago eta naturalagoetara eraman nai izan zuen, linguistika zientziaren ezagutzeak ortara baitarama edozein. Euskal sintaxis eta azentuaz ere aritu zan eta bi liburu utzi dizkigu: **Enderismos** eta **El Acento Vasco**. Badu beste obra bat ere: **Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de R. M. de Azkue**. Ortaz gaiñera beste lan asko eta asko dauzka argitaratuak zenbait euskal aldizkaritan eta emen eztitugu zeatzasunak jarriko be- rri oso labur bat besterik ezpaitegu eman nai. 1958 urteko abenduan Euskaltzaindiak Bilbon prestatu zuen Euskalzaleen Biltzarrean parte artu zuen eta aren ondoren euskal itzei buruz artu ziran erabakiak zeoro onetsi zituan eta zeoro aien alde atera zan.

Euskaltzaindiak bere gizon nagusienetako bat galdu du.

### LEON LEON (1896-1962)

Uztaritzen ilda Leon Leon erretore nagusia 1962 otsaillaren 12-an. Hazparne-n jaio zan 1896 urtean familia ohoragarri batean eta gazterik aditu zuen apez egiteko deia. Eskolak bere errian eta gero Beloken egin zituen. Bigarren maillakoak egiten ari zala Europa-ko gerra piztu zan eta gudu tokietara joan zan. Desarmatu bezain laster Baiona-ko Seminario aundian sartu zan. Saint-Pierre jaun apeza zagoen an eta orduko apezgai andana bat euskera maitatzera bultzatu zuen eta Leon Leon ere euskera lantzen aritu zan. 1923 urtean apeztu zan eta Hazparne-ra izendatu zuten irakasle eta urte bete egin zuen kolejoan. Gero Baiona-ra joan zan eta bost urte egon zan eta an eman zuen euskeraz **Imitazionea**. Donibane Lohizunera bialdu zuten bikario eta an 1932 urtean Arrangoitzeko erretore egin zuten arte egon zan. 1939-ko gerra eldu zanean Arnegi-ko mugaren zain jarri zuten. 1941 urtean jaun apezpikuak